

estatutuak

biga-
rren •
zatia

Biltzar nagusia

ILAB

25 urte lanean

ESTATUTUAK



5. BILTZAR NAGUSIKO 2. ZATIAREN EZTABAIDA EGUTEGIA

- Estatutuen proposamenaren banaketa: Azaroaren 13tik aurrera.
- Eskualdeetan eztabaidaren hasiera: Azaroaren 20tik aurrera.
- Emendakinak aurkezteko epea: Otsailaren 12a arte.
- Emendakinen banaketa: Martxoaren 12tik aurrera.
- 5. Biltzar Nagusiaren 2. Zatia: Apirilaren 6an.

1. Artikulua. LABen EZAUGARRIAK.

- 1.1. Sindikatu abertzalea.
- 1.2. Sindikatu euskaldun euskaltzalea.
- 1.3. Sindikatu soziopolitiko.
- 1.4. Sindikatu autonomoa.
- 1.5. Gizonez eta emakumez osatutako sindikatua.
- 1.6. Sindikatu internazionalista.
- 1.7. LAB eta ekologia.

2. Artikulua. IZENA, LURRALDE-EREMUA, IKURRA, ETA LOGOTIPOA.

- 2.1. Izena eta lurralde-eremua.
- 2.2. Ikurra eta logotipoa.

3. Artikulua. AFILIAZIOA.

- 3.1. Afiliazioa.
- 3.2. Afiliazio altak.
- 3.3. Afiliazio karneta.
- 3.4. Afiliatuen eskubideak.
- 3.5. Afiliatuen betebeharrak.
- 3.6. Afiliazio bajak.

4. Artikulua. DISZIPLINA-ARAUBIDEA.

- 4.1. Zigorrek ezartzeko arazoak.
- 4.2. Falten kalifikazioa.
- 4.3. Zigor neurriak.
- 4.4. Prozedura.

5. Artikulua. BERMEEN BATZORDEA ETA FINANTZAK KONTROLATZEKO BATZORDEA.

- 5.1. Bermeen Batzordea.
- 5.2. Finantzak kontrolatzeko Batzordea.

6. EGITURA ETA ZUZENDARITZA ORGANO KONFEDERALAK.

- 6.1. Zuzendaritza organo konfederalak.
- 6.2. Biltzar Nagusia.
- 6.3. Biltzar Nazionala.
- 6.4. Komite Nazionala.
- 6.5. Komite Exekutiboa.

7. Artikulua. SINDIKATUAREN BESTE ORGANO ETA EGITURA BATZUK.

- 7.1. Egitura sektoriala.
- 7.2. Lurralde egitura.
- 7.3. Eskuhartze arloak.
- 7.4. Sail sindikalak.

8. Artikulua. BATERAEZINTASUNAK.

- 8.1. Bateriaezintasunekin zerikusia izan dezaketen pertsonak eta organoak.

9. Artikulua. DEUSEZTAPENA.

XEDAPEN IRAGANKORRAK.-

1. Bateriaezintasunak.
2. Biltzar Nagusien aurreko araudia.
3. Adinari dagokion muga.
4. Berriztapena.
5. Euskara

XEDAPEN GEHIGARRIAK.-

1. Barne araudia

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.-



1. Artikulua. LABen EZAUGARRIAK

1.1. SINDIKATU ABERTZALEA.

LABek Euskal Herria nazio bat dela aldarrikatzen du. Bere herritarrei dagokie euren orainaldiaren eta etorkizunaren inguruan erabakitzea, autodeterminazio eskubidea - nazioartean onartuta baitago - askatasunez erabiliz. Haren lurraldeak Behe Nafarroa, Lapurdi, Zuberoa -gaur egun frantziar Estatuaren menpe-, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroa Garaia -gaur egun espainiar Estatuaren menpe- dira. Lurralde horiek dira LABen jardueraren eta antolakuntzaren eremua. Bere xedea Euskal Estatu Independentea, Sozialista, Euskalduna, ez-Patriarkala eta Ekologista eraikitzea da.

1.2. SINDIKATU EUSKALDUN EUSKALTZALEA.

Euskara Euskal Herriaren nortasunaren oinarritzko osagaia da. Horrenbestez, LABek bere hizkuntzat hartzen du eta konpromiso sendoa hartzen du euskara berreskuratzea eraman dezaketen politikak garatzeko eta sustatzeko, bereziki lan munduan. Bere eginkizunetan erabiliko den hizkuntza izango da. Euskararen erabileraren normalizazioa eta beraren ikaskuntza antolatuko ditu bere egituretako kideentzat, euskara menperatzen ez badute. Halaber, betekizun bat izango da bere kontratazio politikan.

1.3. SINDIKATU SOZIOPOLITIKOA.

Langile klasearen bizi eta lan baldintzak hobetzearen alde aritzen den aldi berean, langile horiek Euskal Herriaren eraikuntza nazional eta sozialaren eragile aktiboak izan behar direla aldarrikatzen du LABek. Izan ere, beraiek izan behar dute gidariak subiranotasunaren aldeko eta pertsonen izaera libre, sozial eta berdintasunezkoaren aldeko borrokan. Gizartearentzat eraginkorra den eredu ekonomiko baten alde dihardugu, eta, alde horretatik, baliabide eta produkzio indar guztiak euskal gizartearen interes kolektibo eta indibidualen zerbitzuan jarri nahi ditugu.

1.4. SINDIKATU AUTONOMOA.

LAB autonomia da edozein alderdi politiko, instituzio edo presio taldetatik, eta onartzen dituen erabaki bakarrak beraren zuzendaritza organoek hartutakoak dira. Lehentasunezko harremanak izango ditu, elkartruke eta eztabaida mailan, aldaketa sozialen eta nazio askapenaren bidean aurrera egitera eraman dezaketen estrategia konparti-

tuak bilatzeko nahiekin bat egiten duten erakunde politiko eta sozialekin.

1.5. GIZONEZ ETA EMAKUMEZ OSATUTAKO SINDIKATUA.

Emakume langileek eremu guztietan pairatzen duten zapalketa estrukturala da, eta sexuaren arabera lan banaketa da haren sustraia. LABek konpromiso irmoa hartzen du zapalketa horren aurka borrokatzeko, eta horretarako era guztietako diskriminazio sexualak ezabatzen saiatuko da, bai lanaren munduan eta bai Erakundearen barnean ere. Horrekin batera, emakume langileei aukera eskainiko die partehartze zuzen, aktibo eta orekatua izan dezaten erabakitze esparruetan. Emakume eta gizon langileen arteko aukera berdintasuna errealitate bihurtzeko emakumeen aldeko ekintza positiboko neurriak abian jartzea eskatzen du, kanpo- eta barne eskuhartze-eremu guztietan eta LABen antolakuntza arlo guztietan.

1.6. SINDIKATU INTERNAZIONALISTA.

Ziur gaude gizakiok ez dugula irtenbiderik neoliberalismoak ezarritako baldintzak onartuz gero, eta, hortaz, horren aurkako borrokaren ardatza munduan zapalduta dauden pertsona guztien ekimen solidarioa dela uste dugu. Errebindikazio nazionala eta herrien autodeterminazio librerako eskubidea klaseen arteko borrokaren motore dela uste dugu, zeren eta, errebindikazio zilegia izateaz gain, globalizazioaren logikaren aurka zuzentzen baita erabat. Demokraziaren eta justizia sozialaren aldeko borroka horretan, herri guztiekin batera lan egiteko konpromisoaren alde azaltzen gara. Erreferentzia horien eraginez, xede horiexen alde lan egiten duten sindikatuekiko harremanak landuko ditu bereziki LABek.

1.7. LAB ETA EKOLOGIA.

Kapitalismoaren garapen ereduaren ardatza natura ustiatzea eta arpilatzea da, eta hori gizakion biziaren oinarriak suntsitzen ari da. Gure planetan ageriko hondamenak gertatzen ari dira: berotegi-efektua, desertifikazioa, eta lur, aire zein uraren kutsadura. Egoera hori ikusirik, borroka ekologikoak izaera estrategikoa duela uste dugu LABen, zeren Lurra eta -ondorioz- gizateria bizirik iraunaraztea baita beraren helburua. Horrenbestez, neurritz kanpoko garapenaren aldeko joerak goitik behera aldatu behar direla uste dugu. Hori bideratzeko, diagnosi konpartitu baten aldeko akordio sozial bat lortu behar dugu, ingurugiroa berreskuratzera eraman gaitzaketen oinarriak ezartzeko. Garapen orekatu baten aldeko apustua egiten dugu, ekosistema zein bizi kalitatea berreskuratu ahal izateko.

2. Artikulua. IZENA, IKURRA, LOGOTIPOA ETA LURRALDE-EREMUA

2.1.- IZENA ETA LURRALDE-EREMUA.

2.1.1. Sindikatuaren izena Langile Abertzaleen Batzordeak da. Izen hori L.A.B. siglei dagokie.

2.1.2. LABen antolakuntza eta jarduera eremua Euskal Herri osoa da, hau da, Behe Nafarroa, Lapurdi eta Zuberoa frantziar Estatuan eta Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroa Garaia espainiar Estatuan.

2.2.- IKURRA ETA LOGOTIPOA.

2.2.1. LABen ikurra argizaiol bat da, horizontalean jarrita, zirkulu baten erdian. Beraren oinarrian LAB siglak ageri dira, gainjarrita eta euskal grafiaz, eta beraiekin batera tximinia bat ikurrinarekin. Sindikatu honen historia gogoratzen du, eta gertaera edo ospakizun garrantzitsuetan soilik erabiliko da.

2.2.2. Logotipoa bandera itxurako laukizuzen bat da, sindikatuaren siglak Rockwell letra ertain eta larrian dituena; barnealdea hutsik dago, eta azpian zerrenda bat du, izen osoa letra xehe lodian eta kutxa eginez erakusten duena. Logotipo horretan aldaketak egin daitezke, ikuspegi komunikatibotik begiratuta egoki irizten bazaio. Aldaketak Komunikazio arloak proposatuko dizkio Komite Nazionalari, eta haien inguruko erabakia Biltzar Nazionalaren esku utziko da.

3. Artikulua. AFILIAZIOA

3.1. AFILIAZIOA.

Langile guztiek dute sindikatuan afiliatzeko aukera. Horren baldintzak sindikatua-
ren printzipioak onartzea, beraren Estatutuak eta organoen erabakiak betetzea eta kuotak
ordaintzea dira.

3.2. AFILIAZIO ALTAK.

Afiliazioa norberaren eskualdean edo sektorean egin daiteke.

3.3. AFILIAZIO KARNETA.

Afiliatutako lagunek LABen kide bezala identifikatzen dituen karnet bana izango dute.

3.4. AFILIATUEN ESKUBIDEAK.

Afiliatutako lagun guztiek honako eskubide hauek dituzte:

- a) Informazioa jasotzea eta iritzia ematea interesgarritzat jotzen dituzten gai guztien inguruan.
- b) Aholkularitza sindikala jasotzea, ezarritako baldintzetan.
- c) Dagozkien esparruetako eztabaida eta erabakietan parte hartzea.
- d) Ordezkaritza gisa biltzarretara joatea eta ordezkaritza organoak aukeratzea, baldin eta gutxienez sei hilabetez afiliatuta egon direla egiaztatzen badute.
- e) Erakundearen egituretarako hautagai bezala aurkeztea eta aukeratuak izatea, baldin eta gutxienez urtebetez afiliatuta egon direla egiaztatzen badute.
- f) Sindikatuaren komunikabidea jasotzea.
- g) Afiliazio fitxan ageri diren datuen konfidentziasuna gorde egingo zaie afiliatuei. Gainera, datu horiek ez dira erabiliko sindikatuaren interesetatik kanpo dauden xedeetarako.

3.5. AFILIATUEN BETEBEHARRAK.

Afiliatutako lagun guztiek honako betebeharrak dituzte:

- a) Estatutuak betetzea.
- b) Egiturek hartutako erabakiak betetzea.
- c) Kuota ordaintzea, ezarritako zenbatekoan eta garaian.

3.6. AFILIAZIO BAJAK.

Afiliazio bajak ondorengo arrazoiengatik gerta daitezke:

- a) Afiliatutako lagunek hala nahi dutelako.
- b) Sei hilabetetan kuota ez ordaintzeagatik.
- c) Sindikatuan aginpidea duten organoek horren inguruko erabaki irmoa hartzen dutelako.

4. Artikulua. DISZIPLINA-ARAU BIDEA

4.1. ZIGORRAK EZARTZEKO ARRAZOIAK.

Afiliatuek zigorrak jaso ditzakete Estatutuak edo Sindikatuaren organoen erabakiak betetzen ez badituzte edo Sindikatuaren helburuen aurka aritzen badira. Zigorraren neurria faltaren larritasunaren arabera izango da.

4.2. FALTEN KALIFIKAZIOA.

Faltak hiru motatakoak izan daitezke: arinak, larriak eta oso larriak.

Falta zer motatakoa den erabakitzeko kontuan hartu behar da arau-haustea norainokoa izan den eta kasu bakoitzaren zirkunstanziak.

4.3. ZIGOR NEURRIAK.

Zigorrak hauexek izan daitezke:

- a) Falta arinak: ohartarazpena.
- b) Falta larriak: afiliazioa bertan behera uztea hilabete bat eta urte bat bitarteko aldi baterako.
- c) Falta oso larriak: afiliatua sindikatutik kanporatzea.

Aukeratzen den zigorra afiliatua kanporatzea baldin bada, afiliatu hori eskubide eta betebeharririk gabe geratuko da Bermeen Batzordeak zigorra berresten duen arte, baldin eta zigortutakoak errekurtsua aurkezten badu Batzorde horretan.

4.4. PROZEDURA.

Zigorrak ezartzeko erabaki guztiek prozedura honi jarraitu behar diote:

- a) Prozedura hasiko da goiko hurrengo egiturak hala eskatzen duenean, ondoren adierazten diren epeetan:

- Falta arinak: hilabete bat.
- Falta larriak: hiru hilabete.
- Falta oso larriak: sei hilabete.

b) Faltaren ezaugarriak adierazten dituen txosten bat egin behar da. Bertan, honako datu hauek agertu behar dira gutxienez:

- zigortu beharreko gertaeraren azalpen zehatza.
- bete gabe utzi den araua zein den azaldu behar da.
- zigorraren kalifikazioa, behar den bezala arrazoituta.
- zigor proposamena.

c) Txostena zigortu nahi diren pertsoneri emango zaie, hamar eguneko epean egoki deritzeten adierazpenak egin ditzaten.

d) Adierazpenak jasotzen direnean edo epea agortzen denean, aginpidea duen organoak erabakitako zigorraren berri emango du hamabost eguneko epean.

e) Zigortutakoek zigorraren aurkako errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Bermeen Batzordearen aurrean, arrazoizko idazki baten bidez, erabakia jakinarazten zaienetik hamar egun iragan baino lehen.

f) Bermeen Batzordearen erabakia betearazlea izango da Erakunde osoarentzat eta hogei-ta hamar eguneko epean eman beharko da.

5. Artikulua. BERMEEN BATZORDEA ETA FINANTZAK KONTROLATZEKO BATZORDEA

5.1.- BERMEEN BATZORDEA.

5.1.1. Egitura honen zeregina Estatutuak eta Biltzar Konfederalaren erabakiak betetzen direla bermatzea da. Bera da Estatutuak eta aipatutako erabakiak interpretatzen dituen eta disziplina kontuetan aurkezten diren banakako zein taldekako errekurtsoen inguruan erabakitzen duena.

5.1.2. Bermeen Batzordeak bost kide eta bi ordezeko izango ditu; Biltzar Konfederalak aukeratuko ditu Komite Nazionalaren proposamena entzun ondoren. Haien artean idazkari bat aukeratuko da. Pertsona horrek txostenak jasotzeko eta Batzordea biltzera deitzeko ardura izango du.

5.1.3. Bermeen Batzordearen eginkizunak hauexek izango dira:

- a) Estatutuak interpretatzea.
- b) Afiliatuen artean, afiliatuen eta organoen artean, edota organoen artean sortzen diren gatazketan esku hartzea.

5.1.4. Bermeen Batzordeak esku har dezan idatziz eskatu behar zaio; gainera, bere eskuhartzea gatazkaren esparruaren barruan soilik gauza daiteke. Erabakiak gehiengo absolutuz hartuko dira.

5.2.- FINANTZAK KONTROLATZEKO BATZORDEA.

5.2.1. Bere eginkizuna finantzen egoera aztertzea eta egoera ekonomikoari buruzko txostena egitea izango da. Hori bi urtetan behin egingo du, eta horren berri emango dio Biltzar Nazionalari.

5.2.2. Finantzak Kontrolatzeko Batzordeak bost kide titular eta bi ordezeko izango ditu; Biltzarrak aukeratuko ditu Komite Nazionalaren proposamena entzun ondoren. Haren kideek ezin izango dute inolako kargurik izan Sindikatuaren Zuzendaritzan (ez Komite Exekutiboan ez Komite Nazionalean).

6. Artikulua. EGITURA ETA ZUZENDARITZA ORGANO KONFEDERALAK

6.1.- ZUZENDARITZA ORGANO KONFEDERALAK.

Zuzendaritza Organo Konfederalak hauexek dira: BILTZAR NAGUSIA, BILTZAR NAZIONALA, KOMITE NAZIONALA ETA KOMITE EXEKUTIBOA.

6.2.- BILTZAR NAGUSIA.

6.2.1. Eztabaida organoa da. Bertan, estrategia orokorra zein den eta estrategia hori bideratzeko antolakuntza mailan zer aldatu behar den erabakitzen da.

6.2.2. 500 ordezkari izan daiteke. Komite Nazionalako kideek berezko eskubidea dute Biltzar Nagusian parte hartzeko. Gainerako partehartzaileak batzarretan aukeratu dira, biltzar nagusiaren aurreko arauetan ezarritako proportzioan eta moduan.

6.2.3. Ohiko Biltzar Nagusia lau urtetan behin egingo da; horrez gain, Biltzar Nazionalak egoki deritzonean ohiz kanpoko bilerak egingo dira.

6.2.4. Ohiko biltzarrak egiteko deia Biltzar Nazionalak egingo du, biltzarra egin baino sei hilabete lehenago. Ohiz kanpoko biltzarrak deitzeko epea, berriz, bi hilabetetara jaitsi daiteke.

6.2.5. Biltzarra behar den bezala eratuta egon dadin bi baldintza bete behar dira: alde batetik, beraren partehartzaileen erdiek gehi batek azaldu behar dute; bestetik, deia modu egokian egin behar da.

6.2.6. Biltzar Nagusiaren eskumenak.

Biltzar Nagusiaren eskumenak hauexek dira:

- a) Estrategia orokorra eta eskuhartze estrategia zehaztea.
- b) Antolakuntza egitura onartzea edo aldatzea.
- c) Estatutuak aldatzea.
- d) Komite Exekutiboa aukeratzea.
- e) Bermeen Batzordea aukeratzea.
- f) Finantzak Kontrolatzeko Batzordea aukeratzea.

6.3.- BILTZAR NAZIONALA.

6.3.1. Biltzar Nagusien arteko organo gorena da.

6.3.2. Biltzar Nazionalaren kideak Komite Nazionala, Sektoreak eta Eskualdeak izango dira, proportzio berdinetan.

Sektoreek bi ordezkari kopuru izango dituzte: alde batetik, kopuru finko bat; bestetik, afiliazioaren arabera kopuru proportzional bat. Eskualdeek ordezkari kopuru finko bat izango dute. Halaber, arloek ordezkari kuota bat izango dute.

6.3.3. Egitura honetan garrantzi berezia duten nazio arduradunen balizko parte hartzea kontuan hartuko da.

6.3.4. Biltzar Nazionalan parte hartzen duten pertsonen aukeraketa Biltzar Konfederalaren ostean egingo da, gehienez hiru hilabete iragan baino lehen. Biltzar Nazionalako kide izateko urtebeteko afiliazioa eduki behar da gutxienez.

6.3.5.- Biltzarkide guztiak nominalak dira eta Biltzar Nagusien arteko garai osoan eutsi behar diete euren ardurei. Funtsezko arrazoiak egonez gero kargua utz dezakete; kasu horretan, ordezeko bat jarriko zaie behin-betirako.

6.3.6. Biltzar Nazionala behar den bezala eratuta egon dadin bi baldintza bete behar dira: alde batetik, beraren partehartzaileen erdiek gehi batek azaldu behar dute; bestetik, deia modu egokian egin behar da.

6.3.7.- Erabakiak eta ebazpenak gehiengo erlatibo hartuko dira. Botoak ezin dira beste inoren esku utzi.

6.3.8. Urtean bi aldiz bilduko da gutxienez.

6.3.9. Hona hemen Biltzar Nazionalaren eskumenak zein diren:

- a) Biltzar Nagusiak deitzea eta beraien arauak onartzea.
- b) Biltzar Nagusiaren erabakiak bete egiten direla bermatzea.
- c) Kuotak aldatzea.
- d) Gastu eta sarreraren aurrekontuak eta aurreko ekitaldiko kontuak onartzea, urtero, Komite Nazionalaren proposamenez.
- e) Zuzendaritza Organoetan hutsik geratzen diren karguak betetzea, Komite Nazionalaren proposamenez.
- f) Nazioarteko erakundeei atxikitzearen inguruan erabakitzea.
- g) Bermeen Batzordearen araudia onartzea.
- h) Finantzak Kontrolatzeko Batzordearen funtzionamendua normalizatzea.
- i) LABek kontratatuko langileen lan harremanak arautzen dituen barne araudia onartzea.
- j) Eskualdeko idazkariak aukeratzea, euren Eskualdeen eta Komite Nazionalaren proposamenez. Aukeraketa Biltzar Konfederala amaitu eta hiru hilabete iragan baino lehen egin behar da.
- k) Komite Exekutiboaren eta Komite Nazionalaren kide kopurua handitzea.

l) Komite Nazionalaren proposamenez, Komite Exekutiboko edozein kide eta Eskualdeko Idazkariak karguz gabetzearen inguruan erabakitzea.

m) Sektoreetako edozein Komite Nazionalari bere Sektoreko Idazkaria aldatzeko proposamena egitea.

6.4.- KOMITE NAZIONALA.

6.4.1. Zuzendaritza organoa da eta Biltzar Nagusiaren eta Biltzar Nazionalaren erabakiak aplikatzeko ardura du.

6.4.2. Komite Nazionalaren kideak hauexek izango dira: Komite Exekutiboko pertsona guztiak, Sektoreetako Idazkariak, Eskualdeetako Idazkariak eta Biltzar Nazionalak aukeratzen dituen pertsonak (gehienez lau).

6.4.3. Komite Nazionalerako izendatua izateko, gehienezko adina 55 urtekoa da eta izangaiak urtebeteko afiliazioa eduki behar du gutxienez.

6.4.4. Komite Nazionalan eta ardura berberarekin jarraian egoteko gehienezko aldia 12 urtekoa da. Karguak berrizatzeko politika hori bideratu ahal izateko, aldez aurretik antolatu beharko da.

6.4.5. Hilabetean behin bilduko da gutxienez. Behar den bezala eratuta egon dadin beraren partehartzaileen erdiek gehi batek azaldu behar dute. Erabakiak gehiengo erlatibo hartuko dira.

6.4.6. Komite Nazionalaren bilerak euskaraz egingo dira.

6.4.7. Hona hemen Komite Nazionalaren eskumenak:

- a) Biltzar Nazionala deitzea.
- b) Biltzar Nagusiak eta Biltzar Nazionalak hartutako erabakiak praxira eramatea.
- c) Bere eginkizunak betetzeko egokitzat jotzen dituen batzordeak eratzea.
- d) Lan plangintzak onartzea, xedek ezartzea eta haiei buruzko balantzea egitea aldiro, erakundearen arlo eta maila guztietan.
- e) Sindikatuak instituzio eta erakundeetan izango dituen ordezkariak aukeratzea.

6.5.- KOMITE EXEKUTIBOA.

6.5.1. Komite Nazionalaren eta Biltzar Nazionalaren erabakiak gauzatzen dituen

zuzendaritza organoa da. Beraren kide kopurua eta ardurak zein diren Biltzar Nagusiak erabakiko du. Erabaki hori hartzerakoan kontuan hartuko da zein diren Komite Exekutiboari agintzen zaizkion eginkizunak; komitekide bakoitzak zeregin zehatz batzuk hartu beharko ditu bere gain.

6.5.2. Komite Exekutiboaren kidea izateko gutxienez bi urteko afiliazioa eskatzen da, funtsezko salbuespenetan izan ezik; gainerako organoetarako, berriz, gutxienez urte bateko afiliazioa.

6.5.3. Gutxienez hamabostean behin bilduko da. Modu egokian eratuta egon dadin beraren kideen erdiek gehi batek azaldu behar dute. Erabakiak gehiengo erlatibo hartuko dira.

6.5.4. Komite Exekutiboaren bilerak euskaraz egingo dira.

6.5.5. Hona hemen Komite Exekutiboaren eskumenak:

- a) Komite Nazionala deitzea.
- b) Sindikatuak instituzio eta erakundeetan izango dituen ordezkariak proposatzea Komite Nazionalari.
- c) Komite Nazionalari langileen kontratazioa proposatzea.
- d) Komite Nazionalaren erabakiak betearaztea.

7. Artikulua. SINDIKATUAREN BESTE ORGANO ETA EGITURA BATZUK

7.1. EGITURA SEKTORIALA.

7.1.1. Egitura sektorialaren organoak hauexek dira: BILTZAR SEKTORIALA, KOMITE NAZIONALA, SEKTOREAREN KOMITE EXEKUTIBOA.

7.1.2. BILTZAR SEKTORIALA.

7.1.2.1. Sektorearen organo gorena da. Bere eginkizuna Sindikatuaren estrategia

orokorra sektorearen egoera konkretura egokitzea da. Bere osaketa afiliatutako pertsonen araberako proportzioan ezarriko da.

7.1.2.2. Sektoreetako Biltzarrak lau urtetan behin deituko dira, Biltzar Konfederala amaitu eta gehienez hamabi hilabete iragan baino lehen.

7.1.2.3. . Modu egokian eratuta egon daitezzen beraien kideen erdiek gehi batek azaldu behar dute. Erabakiak gehiengo erlatiboz hartuko dira.

7.1.2.4. Hona hemen Biltzar Sektorialaren eginkizunak:

- a) Bere eskuhartze-ildoan inguruan erabakitzea, 7.1.1.n atalean ezarritako baldintzak betez.
- b) Bere antolakuntza-eredua garatzea.
- c) Sektorearen Komite Exekutiboa aukeratzea.
- d) Sektorearen Idazkaria aukeratzea.
- e) Biltzar Nazionalan izango dituen ordezkariak aukeratzea.

7.1.3. SEKTOREAREN KOMITE NAZIONALA.

7.1.3.1. Sektorearen organo nagusia da Biltzar Nagusien arteko aldia. Bere kideak hauexek dira: Sektoreko Komite Exekutiboa, Ekintza Sindikalaren arduradun azpisektoria-
lak eta sektoreko eskualdeen arduradunak. Hilabetean behin bilduko da gutxienez. Modu egokian eratuta egon dadin beraren kideen erdiek gehi batek azaldu behar dute. Erabakiak gehiengo erlatiboz hartuko dira.

7.1.3.2. Beraren eginkizunak honako hauek dira:

- a) Biltzar Nagusiaren erabakiak bete egiten direla bermatzea.
- b) Biltzarrak deitzea eta haien araudiak onartzea.
- c) Azpisektoreen lan plangintzak onartzea eta sektoreetako eskualde arduradunak auke-
ratzea.
- d) Lan plangintzen jarraipena egitea eta ebaluatzea.
- e) Konfederazio mailako ekimenak bere baitan biltzea.
- f) Sindikatua hedatzeko eta afiliazioa handitzeko planak egitea eta plan horiek bete egiten
direla bermatzea.
- g) Arloekiko harremanak definitzea.

7.1.4. SEKTOREAREN KOMITE EXEKUTIBOA.

7.1.4.1. Sektorearen Biltzarraren eta Komite Nazionalaren erabakiak praxira eramaten dituen organo sektoriala da. Bere Biltzarrean aukeratzen da eta beraren osaketa behar eta errealitate konkretuen arabera zehazten da. Gutxienez hilabetean behin bilduko da. Erabakiak gehiengo erlatiboz hartuko dira.

7.1.4.2. Hona hemen Sektorearen Komite Exekutiboaren eginkizunak:

- a) Sektorearen ekintza sindikala eta negozioazio kolektiboa gauzatzea.
- b) Sail sindikalen sorrera eta beraien dinamika bultzatzea.
- c) Sektorearen Komite Nazionala deitzea.
- d) Eskuhartze eta hedatze planak prestatzea.
- e) Arloen ikuspegia txertatzea euren lan planetan.

7.2. LURRALDE EGITURA.

7.2.1. Lurralde egituraren atalak ESKUALDEKO IDAZKARITZAK ETA HERRI BILTZARRAK dira.

7.2.2. ESKUALDEKO IDAZKARITZAK.

7.2.2.1. Komite Nazionalaren eta Herri Biltzarren artean dagoen egitura da, Biltzar horiek eratu diren lekuetan.

7.2.2.2. Hona hemen Eskualdeko Idazkaritzen eginkizunak:

- a) Goiko organoen erabakiak bete egiten direla bermatzea.
- b) Sail sindikalen dinamika eta sorrera bultzatzea.
- c) Eskuhartze eta hedatze planak egitea.
- d) Herri Biltzarrak eta sail sindikalak eratzea.

7.2.3. HERRI BILTZARRAK.

7.2.3.1. Lurralde egituraren oinarrizko organoa da; herri mailan antolatzen da. Beraren bitartez LABek lan integral bat egin nahi du, lantokietatik haratago, langile klasearekin zerikusia duten arazo guztiei heltzeko.

7.2.3.2. Hona hemen beraien eginkizunak:

- a) Sindikatua ordezkatzeko instituzioen, erakunde publikoen eta erakunde sozialen aurrean.
- b) Sail sindikalak eratzea.
- c) Afiliazio batzarrak dinamizatzea.

d) Gatazka politiko eta sozialak ezagutzea eta beraietan parte hartzea.

7.3.- ESKUHARTZE ARLOAK.

7.3.1. Arloak antolakuntza mailako eskuhartze-tresnak dira, bai langile klaseak eta bai gizarteren talde eta sektore konkretu batzuek lan munduan -une konkretuetan edo modu iraunkorrean- dituzten arazo espezifikoei heltzeko. Beraien xedea arlo bakoitzaren ikuspegia Sindikatuaren barne eta kanpo jardueran txertatzea da, zeren beraien errebin-dikazio espezifikoak gureganatzea estu lotuta baitago eraiki nahi dugun gizarte ereduare-kin: elkartasun eta justizian oinarritutako gizartearekin, alegia.

7.3.2. Hona hemen Arloen eskumenak:

- a) Beraien eskuhartze politika finkatzea.
- b) Beraien zuzendaritza organoak aukeratzea.
- c) Biltzar Nazionallean dituzten ordezkariak aukeratzea.
- d) Sektoreetako egiturekin zer-nolako harremanak izango dituzten erabakitzea.

7.4.- SAIL SINDIKALAK.

7.4.1. Antolakuntzaren, partaidetzaren eta eskuhartze-lanaren funtsezko muina dira. Sindikatuak enpresetan dituen adarrak dira. Enpresa bakoitzeko afiliatu guztiek osatzen dituzte, eta beraien ordezkariak afiliatu horien artetik aukeratzen dira. Hauxe da, beraz, Sailen ardura: geure politika sindikala enpresetan lan egiten dutenengana eramatea.

7.4.2. Beraien eginkizunak hauexek dira:

- a) Sindikatuaren politika enpresa bakoitzaren ezaugarrietara egokitzea.
- b) Sindikatua ordezkatzeko enpresako zuzendaritzaren aurrean eta bertan lan egiten duten pertsonen aurrean.
- c) Saila Eskualdearekin edo Herri Biltzarrarekin lotzea.
- d) Sindikatuaren propaganda banatzea.
- e) Hauteskunde sindikaletarako zerrendak prestatzea.
- f) Afiliazio plana prestatzea.
- g) Sail sindikalaren ardura izango duen ordezkaria aukeratzea.

8. Artikulua. BATERAEZINTASUNAK

8.1.- BATERAEZINTASUNEKIN ZERIKUSIA IZAN DEZAKETEN PERTSONAK ETA ORGANOAK.

Komite Nazionalaren partaide diren pertsonak ezin dute ez hautazko kargu publikorik izan ez alderdi edo erakunde politiko baten zuzendaritzako partaide izan. Gainerako liberatuei ere bateraezintasun hori aplikatuko zaie, eta hautazko kargu publikoen kasuan soilik aztertuko du Komite Nazional ea salbuespenik egin ote daitekeen.

9. Artikulua. DEUSEZTAPENA

9.1. LAB desegin daiteke xede horrekin deitutako Biltzar Nazionalaren 3/4ek proposatzen badute eta, horren inguruan erabakitzen deitutako Biltzar Nagusi baten 4/5ek hala erabakitzen badute.

9.2. Sindikatua deusezteko erabakia hartzen duen Biltzar Nagusiak bere ondareekin zer egingo den erabakiko du.

XEDAPEN IRAGANKORRAK. -

1. BATERAEZINTASUNAK.- Bateraezintasunei buruzko klausula Biltzar Nagusian onartu bezain laster sartuko da indarrean. Klausularen eraginpean dauden eta ardura instituzionalak edo beste era batekoak dituztenentzat denbora-tarte egoki bat ezarriko da, klausulak dioena bete dezaten. Kargu instituzionalen kasuan, gehienezko epea dagokien legealdiaren bukaera izango da.

2. BILTZAR NAGUSIEN AURREKO ARAUDIA.- Biltzar Nagusien aurreko gaur egungo araudiak indarrean jarraituko du Biltzar Nazionalak edo Biltzar Nagusi berri batek indarririk gabe uzten ez duen bitartean.

3. ADINARI DAGOKION MUGA.- Komite Nazionalako kideei ezarriko zaien adin muga VI. Biltzarretik aurrera sartuko da indarrean.

4. BERRIZTAPENA.- Ardura berberean egoteko gehienezko aldia V. Biltzarretik aurrera hasiko da kontatzen.

5. EUSKARA.- Bai Komite Nazionalak eta bai Komite Exekutiboak euskaraz jardun dezaketela bermatzeko xedez, beraien kideek gutxienezko hizkuntza-maila izan beharko dute.

Jadanik Komite Nazionalan dauden edo biltzar-garai honetan sartzen diren eta behar bezainbesteko hizkuntza-maila ez duten pertsonen dagokienez, neurri egokiak hartuko dira, norberaren hizkuntza-errealitatea kontuan harturik, epe jakin batean beraien jakintza maila normalizatu ahal izan dezaten.

XEDAPEN GEHIGARRIAK. -

BARNE ARAUDIA.- Estatutuak onartzen direnean Barne Araudi bat egingo du LABek, sindikatuko liberatuen kontratuen ezaugarriak eta kontratazio politika arautzeko xedez. Araudi horrek, gainera, ardura bakoitzaren lanak deskribatuko ditu eta sindikatuan dauden arduren zerrenda egingo du.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA. -

1.- Estatutu hauetan erabakitakoaren aurka doazen erabaki edo xedapen guztiak indarririk gabe geratzen dira.